



Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaitziak eta bideak iraunarazteko zerbitzuaren esleipena

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 29ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da ondoko zerbitzua esleitzeko: **“Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaitziak eta bideak iraunarazteko zerbitzua”** Kontratua arautze harmonizatupean burutuko da, eta esleipena irizpide anitzak erabiliz —besteak beste, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza—. Hona hemen kontratuaren datuak:

1.- Erakunde esleipen-egilea: Gorlizko Udala.

2.- Kontratuaren helburua.

a) Xedearen deskribapena: “Udalaren berdeguneak, parkeak, lorategiak, zuhaitziak eta bideak iraunarazteko zerbitzuaren esleipena”

b) Kontratua burutzeko lekua: Gorliz.

c) Burutzeko epea: Bi urte eta beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

3.- Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.

a) Izapidetzea: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Arautze harmonizatupeko kontratua, esleipen-irizpide anitzak erabiliz.

4.- Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua: Zenbateko garbia: 432.000,00 euro; BEZ, %21, 90.720,00 euro. Zenbateko osoa: 522.720,00 euro.

5.- Bermeak: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

6.- Dokumentazioa eta informazioa lortzea:

a) Entitatea: Gorlizko Udala, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 9:00-13:00.

b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.

c) Herria eta posta-kodea: 48630-Gorliz.

d) Telefonoa: 94.677.01.93

e) Telefaxa: 94.677.58.07



7.- Bestelako baldintzak: Espainiarrak ez diren enpresek beren kaudimena egiaztatu beharko dute Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

8.- Dokumentazio-eskariak jasotzeko epea: 2017ko otsailaren 27ko 13:00 arte.

9.- Eskaintzak aurkeztea: 2017ko martxoaren 6ko 13:00 arte.

10.- Eskaintzak irekitzea: Gorlizko Udaletxean, lehiatzaile bakoitzari nahiko aurretiaz jakinaraziko zaizkien egun eta orduan.

11.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako baldintzak eta informazioa: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

12.- Iragarkiaren gastuak: Esleipen-hartzailearen kontura, Hitzarkinen Orrien arabera.

13.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2017ko urtarrilaren 18an.

Gorliz, 2017ko urtarrilaren 18a

ALKATEA

Arantza Etxebarria Villabeitia